



Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen negoziazio-mahaia

HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA PERTSONALAREN ASTEKO LANALDIARI BURUZKO AKORDIOA

Lakuan, 2018ko ekainaren 18an

Gaurko negoziazio-mahaian bildu diren ordezkariak akordio hau izenpetzen dute, eta aipatutako bileraren aktaren eranskin gisa gehituta geratzen da.

Akordioaren oinarria.

2018ko apirilaren 13ko akordioak Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonalaren gehienezko asteko lanaldi osoa 37,5 orduan (37 ordu eta 30 minututan) ezartzen du. Hala ere, bai langile hauen jantoki / jolastoki eremuko arreta bai langile hauen asteko lanaldi erdia zehaztea beharrezkoa da. Ondorioz, Hitzarmen Kolektiboaren 17.3 artikulua erredakzioan hurrengo paragrafoak sartzea **adosten** da:

"Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonalaren ordutegia, zerbitzuak prestatzen diren ikastetxean ikasleak sartu eta ateratzen diren ordutegiarekin kointzidituko du.

Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonalak ikastetxean egon behar diren orduetan, hurrengo ekintzak aurrera eramango ditu: materialen prestazioa, beste irakasleekin koordinatzea, klaustroan parte hartzea, gurasoekin bilerak izatea, ikastetxearen bileretan parte hartzea.

1. Gehienezko asteko lanaldi osoa: 37 ordu eta 30 minutu.

1.1.- Ikastetxeak zeinetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztiak edo zati batek, jantoki zerbitzuarekin, autonomia pertsonal edo sozialeko programa bati lotuta dauden (eskolako jantokian arreta / jolastokian arreta).

Kasu honetan, ikastetxeari esleitutako Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonal guztia (jantoki zerbitzua duten ikasleak esleituta ez dutenak barne) jantoki zerbitzuan arreta emango dute txandakatuz era partekatuan.

Bakarrik, jantoki zerbitzuan arreta eman behar dutenean bakoitzaren txanda delako, Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonala bazkaltzeko ordu bat izango dute eta denbora hori lanaldi moduan kontutan hartuko da. Era berean, jantokiko menua hartzeko eskubidea izango dute.

1.2.- Ikastetxeak zeinetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztiak autonomia pertsonal edo sozialeko programarik ez duten jolastoki / jantoki denboran.

Ikastetxe hauetan, Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonalak jantokiko ordutartean haiek bazkaltzeko ordu bateko etenaldia izango dute. Denbora hau ez da lanaldi moduan kontuan hartuko eta ez dute jantoki menua hartzeko eskubiderik izango.

1.3.- Hezkuntza Laguntzako espezialista pertsonalak astero 2 ordu eta 30 minutu izango dituzte ikastetxean koordinatu eta prestatzeko materiala.

2. Gehienezko asteko lanaldi erdia: 18 ordu eta 45 minutu.

Arreta zuzena eguneko hiru ordukoa izango da. Ikastetxearen antolaketa arrazoiak direla eta arreta zuzeneko 3 ordu horiek egitea posible ez denean, asteko arreta zuzena 15 ordukoa izango da. Era berean, astero ordu 1 eta 15 minutu izango dituzte ikastetxean koordinatu eta prestatzeko materiala.



Antolaketa arrazoiengatik beharrezkoa denean, langile hauek zerbitzuak prestatuko dituzte bi ikastetxe desberdinetan egun desberdinetan.

Jantoki zerbitzuan arreta ematen dutenean (eskolako jantokian arreta / jolastokian arreta), ordu erdi izango dute haiek bazkaltzeko eta denbora hori lanaldi bezala kontutan hartuko da. Gainera, jantokiko menua hartzeko eskubidea izango dute.

Hezkuntza Saila

LAB

ELA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

STEILAS

CCOO

UGT

